

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

103/2019 Foru Agindua, apirilaren 5ekoa, baimentzen duena Ágata Ariane López Santanaren izendapena, Eskuernagako, Samaniegoko eta Mañuetako udal elkarteko idazkari-kontuhartzailearen lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko

Eskuernagako, Samaniegoko eta Mañuetako udal elkarteak aldundi honi jakinarazi dio, ezen lanpostu horren titularra, María del Mar Arranz Olmos, toki administrazioko gaikuntza nazionaleko funtzionarioa, zerbitzu eginkizunetan denez Ermuko Udalean (Bizkaia), egun hutsik dagoela lanpostua, 2019ko martxoaren 20an Arantza Jausoru Marugain bitarteko funtzionarioak uko egin baitzion.

Ondorioz, Eskuernagako, Samaniegoko eta Mañuetako udal elkarteak iragarkia argitaratu zuen ALHAOn (36. zk., 2019ko martxoaren 25ekoa), toki administrazioko gaikuntza nazionaleko edozein funtzionarioek lanpostua betetzea eskatu ahal izan zezan, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulutik 51. artikulura jasotako edozein eratan, baina, eskaerak egiteko epea igaro ondoren, deia egin zuen udal elkarteak ez zuen eskaerarik jaso, zuzendaritza honetara bidalitako espedientean egiaztatzen duenaren arabera.

Hortaz, bitarteko funtzionario bat izendatu beharra dago, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen lege araubidea arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluen lehenengo apartatuan xedatutakoaren arabera:

“1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki korporazioek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, zeinak A1 azpitaldera sartzeko eskatutako titulua eduki beharko baitu.”

Horregatik, Eskuernagako, Samaniegoko eta Mañuetako udalen elkarteak IVAPera jo zuen, bere zerrendetatik hautagai bat proposa ziezaion eskatzeko, eta aipatutako lanposturako Ágata Ariane López Santana izendatzea proposatu du, A1 azpitaldera sartzeko eskatzen den titulua baitu eta proposatutako lanpostua betetzea onartu baitu, 2019ko apirilaren 4tik aurrerako ondorioekin.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar da lanpostua betetzearen edo lanera itzultzearen ondorioei buruz aipatutako errege dekretuak 54. artikuluan xedatutakoa:

“Baldin behin-behineko edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu lanpostua, hura lanpostutik kentzea ekarriko dute, automatikoki, honako hauek: lanpostua behin betiko betetzeak, kapitulu honetan jasotako kasuetan titularra lanera itzultzeak edo behin-behineko izendapen bat, zerbitzu eginkizunetakoa edo metaketa bidezkoa, egiteak.”

Horiek horrela, egoki jotzen da Eskuernagako, Samaniegoko eta Mañuetako udal elkarteak egindako izendapen proposamena onestea.

Euskal Autonomia Erkidegoan izendapen hori egiteko eskumena duen erakundea Arabako Foru Aldundia da, aurretik aipatu den martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Azaldutako guztiagatik, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ágata Ariane López Santa izendatzea, 2019ko apirilaren 4tik aurrerako ondorioekin, Eskuernagako, Samaniegoko eta Mañuetako udal elkarteko idazkari-kontuhartzailearen lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko.

Bigarrena. Lanpostuaren titularra bertara itzuli arte izango du eragina izendapen horrek. Dena den, edozein unetan indargabetu ahal izango da bai Eskuernagako, Mañuetako eta Samaniegoko udal elkarteak hala eskatuz gero, bai hura kargutik kentzeko legezko arrazoiren bat izanez gero.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Eskuernagako, Samaniegoko eta Mañuetako udal elkarteari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 5a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta
Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ